

2017-10-25

PRENTSA-OHARRA

## **EUSKAL ESKOLA PUBLIKOKO MURRIZKETEN KONTRA EGINGO DIREN MANIFESTAZIOETAN PARTE HARTZERA DEITZEN DITUGU FAMILIAK**

Larunbat honetan EAEko hiru hiriburuetan ELA, LAB eta STEILAS sindikatuek antolatu dituzten manifestazioetan parte hartzeko deia egiten diegu Euskal Eskola Publikoko familiei.

Deialdi hauen helburua da ikastetxe publikoetako irakasleen lan-baldintzek jasan dituzten murrizketak salatzea. Gelako ratioak jaitea, ordezkapenak lehen egunetik egitea eta egonkortasuna aldarrikatzen dituzte besteak beste, hezkuntzaren kalitatean eragin zuzena duten eskaerak.

Murrizketa hauei azken aldian salatu ditugun beste batzuk gehitu behar zaizkie: azpiegiturak, material kurrikularrak, IGE eta federazioen diru-laguntzak, eta abar. Gaur, inoiz baino ozenago, Euskal Eskola Publikoaren zentralitatea aldarrikatu nahi dugu. Ez dadila diru gehiago sare pribatura bideratu sare publikoaren beharrak betetzen ez diren bitartean.

Hauexek dira deialdiak: Donostia (17:00etan Alderdi Ederretik), Gasteiz (Ama Zuriaren Plaza, 17:00etan) eta Bilbo (Gran Vía, 89 17,30etan).

## **EHIGE LLAMA A LAS FAMILIAS A PARTICIPAR EN LAS MANIFESTACIONES CONTRA LOS RECORTES EN LA ESCUELA PÚBLICA VASCA**

EHIGE llama a las familias a participar en las manifestaciones convocadas este sábado por los sindicatos ELA, LAB y STEILAS en las tres capitales de la CAV.

Estas convocatorias tienen como objetivo principal denunciar los recortes que han sufrido las condiciones laborales del profesorado de la Escuela Pública Vasca en los últimos años, e incluyen temas como bajar la ratio por aula, realizar sustituciones desde el primer día o mejorar la estabilidad, aspectos todos ellos que redundan en la calidad de la enseñanza.

Estos recortes se suman a otros que ya venimos denunciando en los últimos años: infraestructuras, materiales curriculares, subvenciones a AMPAs y federaciones, etc. Hoy más que nunca reivindicamos la centralidad de la Escuela Pública Vasca y que no se destinen más recursos a la red privada mientras no se responda a las necesidades de la red pública.

Las manifestaciones partirán a las 17:00 horas de Donostia (Alderdi Eder) y Vitoria-Gasteiz (Plaza de la Virgen Blanca) y a las 17:30 de Bilbao (Gran Vía, 89).